# Zoaz mendira eta konta ezazu

*EZ zaigu sekula erreza izan Euskadiko mendiei buruzko artikulurik eskuratzea Pyrenaicarako. Geuretzat ere, aldizkari honetarako erregularki idazten dugunontzat, askoz ere sariemaleagoa da urruneko mendietara ateratzen garenean bizi izandako bizipenak kontatzea. Logikoa da kanpokoaz kontatzen duzuna kuriosoagoa izan dadin. Alderantziz, "etxe inguruko" mendietan zehar sarriago ibiltzen garen arren, ez da erreza lehenago esanda ez dagoen gauza interesgarririk aurkitzea. Gure mendien gainean dagoen literatura oso zabala da. Azken hogei urteetan izandako literaturgintza apartekoa izan da, Mendiak-en lehen bost liburuki erabatekoetatik hasiz eta Angulo eta beste batzuren liburuekin jarraituz.*

*Horrexegatik poztasun bikoitza ematen digu Euskadiko mendiei buruzko lan garrantzitsu bat jasotzeak. Izan ere, honako ale hau Salbada mendikatearen gaineko artikulu batez zabaltzen dugu. Istorio kuriosoa izan da bere egilearekin izan dugun harremana -telefonikoa, berau; animatu egin behar izan dugu ataken bilketa amaitu dezan eta, emaitza ezinhobearen aurrean, delako bilketa hori txosten orokor batez eta biribiltze fotografiko batez osotu dezan.Ba dakigu jakin zorabiatu egin dugula erabat baina, azkenean, hortxe dago lortu den produktua, gure mendiei buruz idaztean oraindik egiteko dagoenaren eredu bezala.*

*Gustatuko litzaiguke etsenplua zabalduko balitz. Ezagutzen ditugun edo baieztatzea gustatuko litzaigukeen gaien gainean bakoitzak izan ditzakeen jatorrizko ideiak berrikusi baino ez da behar. Egia da honelako artikulu batzu argitaratu direla azken urte hauetan, baina alternatiba asko dago. Hauetariko batzu aipatzearren: Euskadiko ibai handien iturburuak identifikatzea, gutxi ezagutzen diren urjauziak, monolito ahaztuak, tontor bat baino gehiago izateagatik eztabaidan dauden mendiak, ailegabide alternatiboak gailurreraino errepidea duten mendietara, ....eta beste asko.*

*Eskatzen diegu mendizaleei ikertu dezaten eta emaitzak elkarrekin eskualdatu ditzaten (eta honek ez du esan nahi artikuluek ikerketen egitura estandarra izan behar dutenik: sarrera, helburuak, metodoa, emaitzak eta ondorioak). Kontaketa txangoen "txosten" hutsak bezala planteiatzeko joera gainditu beharra dago, horrelakoak oso ezagunak bait dira edo tokiko egunkarietan agertzen bait dira (era berean, zerbitzu interesgarria betetzen badute ere). Gaiak deskubritu behar dira, dokumentatu beharra dago, estudiatu, joan, itzuli eta errepikatu, kontsultatu... idatzi, argazkiak egin eta marraztu... eta Pyrenaicaren idazlaritzarekin harremanetan jarri.*

# Vete al monte y cuéntalo

NUNCA nos ha resultado fácil conseguir para Pyrenaica artículos sobre los montes de Euskadi. Incluso a nosotros mismos, los que escribimos para la revista con cierta asiduidad, nos resulta mucho más gratificante contar las vivencias de cuando salimos a montañas lejanas. Es lógico que lo que cuentes de fuera sea siempre más novedoso. En cambio, aunque andamos mucho más a menudo por los "montes de casa", no es fácil encontrar cosas interesantes, que no se hayan dicho. La literatura que existe ya sobre nuestros montes es muy extensa. En los últimos veinte años la producción ha sido extraordinaria, empezando por los exhaustivos cinco tomos primeros de Mendiak y siguiendo por los libros de Angulo y tantos otros.

Por eso nos produce una doble alegría cuando recibimos un trabajo importante sobre los montes de Euskadi. Es el caso del artículo sobre la Sierra Salbada con el que abrimos este número. Ha supuesto una curiosa historia de relación -telefónica- con el autor, al que ha habido que animar a que termine su labor de recopilación de portillos y, a la vista del excelente resultado, pedirle que lo complete con un informe general y con un redondeo fotográfico. Somos conscientes de que le hemos mareado "a saco" pero, al final, ahí está el producto conseguido, como una muestra de lo mucho que queda por hacer al escribir sobre nuestras montañas

Nos gustaría que cundiese el ejemplo. Es cuestión de repasar las ideas originales que podemos tener cada uno sobre temas que conocemos o que nos gustaría comprobar. Es verdad que se han publicado ya algunos artículos así en estos últimos años, pero existen muchas alternativas. Por mencionar algunas de ellas: la identificación de los nacederos de los ríos grandes de Euskadi, las cascadas menos conocidas, los monolitos olvidados, los montes polémicos con varias cimas en discusión, los accesos alternativos a las cumbres con carretera... y tantos otros.

Pedimos a los montañeros que investiguen y que se trasmitan los resultados (lo cual no quiere decir que los artículos deban tener la estructura estándar de las investigaciones: introducción, objetivos, método, resultados y conclusiones). Hay que trascender del relato a modo de clásico "parte" de las excursiones, que ya son conocidas o que aparecen incluso en los diarios locales (con lo que cubren un interesante servicio). Hay que descubrir temas, documentarse, estudiarlos, ir, volver y repetir, consultarlo... escribir, fotografiar y dibujar... y ponerse en contacto con la redacción de Pyrenaica.

**Txomin Uriarte**